

8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresa manufaktura enpresa da, ekoizpena baita bere funtsezko jarduera. Jarduera hau produkzioan oinarritzen da, eta produktua, ingeniari batek diseinaturiko matxarda mekaniko batez ornituriko karritu bat da.

Gure enpresak produktu hori ekoiztu eta geroago bezeroei emango die, beti ere bere kalitatea zainduz.

Gure ustez, matxarda mekaniko honek, garrantzia handiko gizartearen gabezia bat konponduko du. Erosketak egiterako orduan, hainbat eta hainbat ezgaituen ezerosotasunak desagertzea eragingo du, eta hauek ez dute beste norbaiten laguntzaren menpe egongo behar.



Produktuaren inguruko interesdunek, haren inguruko edozein informazio aurkitu ahal izateko, web-gune bat sortu dugu: erosketak interneten bertan egiteko aukera izan dezaten, argazki desberdinak ikus ditzaten, behar izatekotan gurekin kontaktuan jartzeko etab.

Eta guretzat funtsezkoa da web-gune honetan, bezeroak produktuaren inguruko iritziak/kritikak emateko aukera izatea. Horren bidez, haien arteko ideiak partekatu ahal izango dituzte, eta aldi berean, guk hobetu ditzakegun gauzak antzemango ahal izango dugu.



Gainera, argi dugu gure piezaren etengabeko hobekuntza egiten saiatuko garela; modelo desberdinak aurkituz edota lehenengoari funtzio gehiago gehituz esaterako, gure ideien inguruan lan egiten, zein bezeroek egindako iruzkinetan oinarrituz ateratako ideien inguruan lan egiten.